

3. Amaeskolako hizkuntza indoeuropearraren aurrean

Felix Zubiaga Legarreta



3.1. Nor

a) Ikasketak / Studies / Estudios

- Filosofia eta Erromanikar Letretan Lizentziatua da Deustuko Unibertsitatean, Unamuno y las lenguas peninsulares (1973) tesiarekin. Doktorautza Ikasketak (1996-1998) *Vascuence y mitoanálisis* lana egin zuen

b) Argitalpenak / Publications / Publicaciones

- Honezkero, liburu hauek argitaratu ditu: *Vascuence y mitoanálisis / Euskararen ereduak / Jainkoa eta gizakia euskararen oroitzan / Euskal mito-erritoak eta euskara / Apellidos y nobleza / La onomástica, oído de la prehistoria o el vascoeuropeísmo / Analogía, arte del lenguaje, según el vascuence./ Antiguo Testamento del vascuence / Euskararen jakinduria / Euskara mito bizia / Origen y desarrollo del lenguaje (según el vascuence) / Zuzentza eta eskubidea euskararen oroitzan / Euskara bere bitan (psikoaztertuz) / Vascuence, inconsciente colectivo / Amarekin topo / Dic. Etimológico según el vascuence Hitzen jatorria*
- Literatura arloan ipuin, antzerki, eleberri eta poesia lanak egin ditu, zenbait sari jasoz: *Errosarioren kuzkuak, Agora*, (Donostia Saria), *Kalean andre, Zure argi kliskak* (Arrese Beitia Saria, 1986) eta *Oi Emmanue!* (Lizardi Saria 1991)

c) Experience / Eskarmentua / Experiencia

- Erretiroa hartu zuenetik hizkuntza arloko ikerketa lanekin jarraitzen du
- Euskerari eman dizkio bere maisutzako urterik gehienak Lauaxeta Ikastolan
- Urte asko euskeraren ikerketan ekiten dio Eleiker Bildumaren inguru Vascuence y mitoanálisis jarraipenean, metodologiaz etxeko etnografia, toponimia eta euskera bera Antzinako Sortalde Hurbileko mitografiarekin konparatzen dituela.

d) Harremanetarako / Contac / Contacto

- [fzubiaga\[abildua\]orue.biz](mailto:fzubiaga[abildua]orue.biz)

3.2. Laburpena / Abstrac / Resumen

a) Laburpena. Amaeskolako hizkuntza indoeuroparraren aurrean

3.1. Mezularia erail eta kitu. Geurea izango da erreinua --gudu gizonen erabakia. Mezularia euskara da eta euskara, ama hizkuntza. Indoeuropeistek, amarruz? ezjakinez? egin asmakeria.

3.2. Beraz, aita-agintekoek ez dute ezagutuko ama-agintea, ez onartuko: ez galoek Altabizkarko garaipena norena izan zen, ez Iruña-Veleiako altxorra, ez euskararen amatasuna. Guretzat jainko teistak haienak daitezke (Nietchek amestu bezala), baina Ama Jainkoa eta bere eskola geugan bizi da.

3.3. Erdal Hiztegiak, ez dira frantsesak eta ez gaztelerak, ez dute ezagutuko euskara amaren berezko dominiua, latinaren seme direnekoa erratuz aitortzen dute. Arrokeria arrokatik dator, ala eretzi hutsa da.

3.4. Unibertsitateek ez dute ezagutuko gure ahalegin eta aurkikuntzik. Gu nominatik at gagozalako/gaudelako, hots, doan ikertzen dugulako, agian.

Edo Nyland-ek esana : The uniformitarian principle/Berdintasun hastapenean oinarritu, uste dut linguistikak etorkizunean zientzia izaten jarraitu behar lukeela, baina akademiako dorre izateari utzi eta diziplina arteko zientzia, geografia, arkeologia edo silbikultura bezala, eztabaidatua izatekotan. Gainera hau dino: Etorkizunean diziplina, oinarri bezala, ikasle guztiei hizkuntza aurreratu guztien ama den (oinarri den) euskara argiro ezagutzea eskatu behar litzaieke.

b) Abstrac. The mother language against the Indo-European

3.1. Kill the messenger and the work is done, the kingdom will be our because decision of warriors. The messenger is the Euskara, the mother language lying the Indo-European? Think about it.

3.2. Therefore, patrilineages will not recognize the matrilineal Neither the Gauls who was the winner in Altabizkar or the treasure of Iruña-Veleia or Basque motherhood. For us (as Nietchek dreaming), the obscenities of the Lord are alien to us, but the Goddess Mother and her school, remain among us.

3.3. Indo-European languages, neither the French nor the Castilian will not recognize the natural domain of Euskara and it will be wrong saying they are daughters of Latin. Pride (arrokeri) comes from rock, but pointing it is vain.

3.4. The university will not recognize our effort and our findings. We are out of the payroll and we also investigate free and "by heard", it seems.

As Edo Nyland said: "The unitarian principle" based on uniformity, I think the language should abandon the academic tower and will need to open to other scientific disciplines such as geography, archeology, forestry, etc. to contrast (as well say this): For the future, as a basic foundation should be teach to students which is the mother tongue and let them knowing the Euskara clearly.

c) Resumen. La lengua madre frente a las lenguas indoeuropeas

Matar al mensajero y punto. Nuestro será el reino -- la decisión de los hombres de guerra. El mensajero es el euskera y el euskera es la lengua materna. ¿Figuraciones creadas por los indoeuropeistas con artimañas? ¿Por ignorancia?

Por lo tanto, los que se empeñan en la autoridad paternal no confesarán la autoridad maternal, ni la aceptarán: ni los galos, quiénes fueron los que vencieron en Altabizkar, ni el tesoro de Iruña-Beleia, ni la maternidad del euskera. Para nosotros, los dioses teístas son de ellos (tal y como lo soñó Nietche), pero la Madre Diosa y su escuela viven en nosotros.

3.3. Ni los diccionarios del francés, ni del castellano, reconocerán el dominio de la materna euskera, declarando ser hijos del latín. La vanidad proviene de los farallones o son un mero canto fúnebre.

3.4. Las universidades no reconocerán ni nuestro esfuerzo, ni nuestros descubrimientos. Porque nosotros estamos fuera de las nóminas, es decir, porque nosotros investigamos gratis.

Dicho por Edo Nyland: The uniformitarian principle/Basado en el principio de igualdad, creo que la lingüística ha de seguir siendo una ciencia, pero dejando de ser baluarte académico y siendo una ciencia interdisciplinar como la geografía, la arqueología o la silvicultura, para así, ser debatida. Añade, además: En el futuro, como base a todos los estudiantes, se les debería exigir el conocimiento preclaro del euskera como madre que es de todas las lenguas avanzadas.

3.3. Txostena / Communication / Ponencia

a) Ama eskolako hizkuntza

a.1. Ama bakarra dager

Asierako kulturak amatarrak dira eta, eta nahiz izen bereziekin, Ama Jainko eskola bakarra agertzen da gizarteko ereduen artean. Horrela Egipton NUT Jainko Ama Han-di-aren lehen irudipean eta Ama Antu deitzen dena Sume-rren. Beragaitik esana da ama.utu.an.ki “amak egin zeru lurak” ulertzen dena lehenengo idazkian.

Arkeologia lanak egin ondoren, Marija Gimbutas andreak ere “Ama Jainko-aren hizkera” deitzen dio bere lanari eta Ama Jainko Handiaren irudi ugariak dira horren lekuko Europa erdian eta Ama Jainkoen izenak eta irudiak mundu zabalean.

Ama Handiaren teologia da, beraz, hasierako ustea eta sinistez, erritoraino jaso. Haraz gero, *ama, ama, ama* deika mugitzen da familiar txikiena. Hitzak ahozkatzen ikasi du, amaren eskutik. “Honek amaren bularretan ikasi du euskera” esan ohi da halakoetan, edo “amaren sabelerik dator ikasia”. Izan ere ez dago irakasle hoberik ama baino, ez eta eskola atsegina gorik amaren altzoa baino.

Ikasketak aurrera eramateko, amaren ordezkari andereñoa antzinatek izentatzen zan, gure artean ikastola zabaldu zenetik legez. Kontu egin NUT=Maat bera dela Egipton “jakintza eta zuzenbide” jainkosa bezala. Berak du eskutik aginte matoa “makila” irudietan ikusten den bezala. Hizkune datoz, beraz, Maat>Maite/Maidi, eta Maat>mato>masu. Hortik maisu/-maese

formak ere. Maat Jainkosaren semekoa Ra/Erra iruzkia da: Maat+-Ra>matre “ama” datorrena, grekoen eta erromanikoen kopiarako eta mare/--mêre, berriz, Iberiako zenbait tokitan eta frantxesez.

Euskaldunentzat Mari Jainkosa izena bera da. (Hagaitik Urkiolan ezin ziteken Andre Mariaren ermitarik jaso bera, *Ambotoko* Mari, zelako nahiko). Egipton Renenet “andereñoa” Maat+Ra amaren eskolakoa da. Ba al du Renenet>Erri-en-tza>-Rejenta formaekin zerikusirik? Jakina, maîtresse de école hitzak bezala. Kontsonanteei begiratzea baino ez dago. Sumerren, ostera, eduba eskolako “andereñoa” Ninsaba “Xaba andereñoa” zan. Eduba “taulatxoan edu-pe” izenaz antolatu eskola, alegia. Euskara noraino heltzen den: edu>eredu formetan!

Ninsaba eta Renenet andereñoen arazoa erakustea ezezik, umeen elikaduraz arduratzea zan. Auzo ikastolak ere sukaldedunak ziran gure artean, etxetik ekarritako mokauak berotu, etab. emendiorako. Andereño ekintza ere berez amatarra delako.

a.2. Ama jainkosa bakarra munduan

Ambotoko Mari mendi batetik bestera joaten omen zan bere umeak bisitatzen. Izen ezberdinekin ere agertzen da: Ambotoko Mari, Aketegiko Dama, Jonagorri, Arpeko Saindua, etab. baina inork ez du esan hiru Mari, Dama edo Saindu direnik; nortasun bakarra eta izen berezidun baidager toki ezberdinetan.

Indian bertan, ustezko indoeuropeismaren garaietatik aita aginte itxuak gidatzen duenarren, herriak ez du ahaztu “Ama maesa” ideia. Saraswati Jainkosak Nepalen du bere santutegia. Hara joaten dira mingain totela duten edo mintzoan atzeratuxe diren umeak (Andre Mariaren deitura batzuetara mitzo argiaren bila joan ohi zirenez) Han Saraswati Jainkosaren santutegiko hormetan idazten dituzte euren lehen esaldi=-orazioneak (hala deitzen ziren Gramatika Zaharrean, arik eta estrukturalistek, XIX. giz. indoeuropeisma izena asmatu zutenak eurak, Gramatikako ormak eratsi eta argamasa edo ore berria egitea erabaki zuten arte). Zera asmatu eta ozenkatu zuten: “hizkuntza batzuk klasifikagarriak zirela, besteak ez. Euskara, berriz, ezezaguna hizkuntzen artean”. Beraz, dena dakiena, ezezaguna. Hori salatzeko, euskara ahoan eduki eta euskaldun ez bagina, haiek pozik, ideia argien mundua eurena delakotan.



Kwan Yi Ama Jainkosa

Txina, Europa baino zabalagoa den lurraldean, Kwan Yi Ama Jainkosa aitortzen da gaurdaiño, jakituriaren, argiaren eta errukiaren amatzat dute. Tao-ren filosofiarekin bateratsu osatzen du erlijio burubidea. Begin inguruan du kapera nausia, baina bere inguru kapera asko ditu, bada ez da geldi egoteko. Amak erromes askoren deira joan beharra du. Txinatar kulturako askok Amerikara joan direnean hango basoetan eraiki ohi dituzte Kwan Yi Jainkosaren kaperak. Bihotzean doana edo dagoena, mendian eta basoan ere agertzen delako, Massabieleko koban bezala...

Amerikan mexikar kultura izan zan aurreratuena, kristau misiolariak hara heldu zirenean eta gaurdaino entzutetsua da Tonantzin Jainkosaren fama. Mexikarrek haxe nahi zuten eta ez ostera, españiar kolonoek erakusten zieten irudia, Hernan Kortesez aintzat zuen estremeñuen Guadalupeko Ama Birgina. Gaurdaiño jarraitzen du eztabaidak. Ixildutzat izan zuten aldi batean, baina, berriz ere, mexikarrek askatasuna lortzean, biztu omen da eztabaida...

a.3. Ama Jainkosa Grezian eta Erroman

Indoeuroparren aurretik Grezian herriko erliginoa jarraitzen zan. Ama Jainkoari dagokionez, Sumer eta Egiptoko kutsua dager eurretan. Urteko uda-negu aldiak adierazteko, Ama Jainkosa da bere giza ezkonkidearen arteko harremanekin gonbaratuaz azaltzen zuten: alegia, Inanna jainkosa Dumuzi senarrarekin ezkondua zan. Halabaina Inanna, jainkosa berez, hilezkorra, izanik, eta Dumuzi, baserritar arrunta berriz, hilkor, hiltean, lurpera joan behar zuen eta Inanna alarguna urtero inpernura jaisten zen, Dumuzi senarraren bila. Udara elkarrekin igaro ondoren, berriro alargun. Horrela aitortzen zuten zenduekin zeukaten harremana.

Egipton ere aldi kosmikoen azalpen berbera dager, baina Isis jainkosaren eta Osiris bere senarraren artean. Osiris erasoz hila, Nilora urtikia izan baizan etea ibaitik senarraren gorpuzkinak jasoten zituan, berarekin berriz ezkontzeko. Kontu egin Nut=Maat=-Hator=Isis Ama Jainkosa beraren belaunaldiak direla Egipton: izen bereziak, aldi ezberdinak, baina nortasun bera. Hator amak seme bi izan zituan, bata ona, Orus/Urtzi, eta bestea setatia, Set (Ambotoko Marik ostera, Mikelats eta Atarrabi), Set-ek erail zuen Osiris bere aita, eta Babiloniako mitoan Suap eta Apsu zeritzen lehen asabei, Enkik, erail zuen Apsu bere aita, haren ondoreaz jabetzearren. Mitema guztiotan gizonezkoa da arasolea.

Grezian gauza berri gutxi dager, baiña Demeter eta Persefone ama-alabaren artean gertatzen zan arazo berdina: amari alaba ostu zioten lurpekoek. Amak alabaren aiduru igadoten zuen urte erdia. Mitema hoiek jarraitzea zirrara gazigozoa egiten zion nonbait gende arruntari. Demeter izenari dagokionez, Tia+Mater, Tia+Mat babiloniar formak bezala aita agintea adierazten du. Beraz Tía+mater>Demeter dator. Tía/Tio>Dea/Zeu datoz eta konposagai hau, aita aginteko ezaugarria da, Matre/Andre ohore izena ezabatzearen asmatua. Jadanik Babilonian K.a. 2000 urte inguru jainko izen guztiak Jau-/Jaun tituludun agertzen dira, horrela Jaun+Inko>Jainko asmatua da, berez Inko Jaun ere aitortzen dena.

Erroman ere berri gutxi: Egiptoko Isis Jainkosaganako jaiarak jarraitzen zuen kristautasuna argitzen zioelarik ere. Isis Jainkosaganako jaiarak, Egipton Denderako santutegian K. o. VI. gizaldiraino igaro zuen eta norbaitsuk Iruña-Veleiako ostraketan Nefertiti irakurri dutela eta, usteltzat jotzen dituzte benetako ostrakak.

b) Ama eskola AITA agintean

b.1. Babiloniako iraultza

Sumerren kontrako iraultza amarruak goiztar agertu ziran akadiar jendearen partetik. Akadiarrak Sumerreko ogia jan eta zerbeza edan truke zetozten albo herrietako langileak ziran. Han dager Gilgames, Uruk iriko errege aut, Inanna/-Isara/-Ishtar maite jainkosari erdeinu hitzak esan eta Kosmoko Zezen plazan bere aurrean eraso eta erasan zuena. Hor hasi zan zezenketen ohitura, gaurdaiño aita agintean zeñu bezela. Gilgames idazkia jokera bien arteko argibide baliotsua da.

Bestealde, iskur zezena agertzen da irudietan, guda gizona lepoan duela odeietan trostatzen. Bere apatx-otsa da trumoa. Ihskur/sekor/xekor da: etxe+ekur osapena... Iraultza osoa, oster, Jainko aginte batetik bestera doana, Babilonian zikurak=-Esarra-ko apaizen asmakeria izan zan, bai Babilonian eta bai Egiptoko Menphisen. Babilonia, Babel garaiko orduen bezperetan, templo-zikurak handiaren ditziraz arrotua zegoen. Abadeek Marduku eroia autatu zuten Tiamat Jainkosa Amaren aurka, Enuma elish "Sorkuntza poeman" agertzen denez. Mitoen garaian, Anu Jainkoaren seme Enki-k, Absu/Abusu, Tiamaten zenarra erail omen zuan, haren aita senaz jabetzearren. Tiamatek orduan Kingu (ohar >king "errege" nondik arrapatu duten ingelesek, aleman jakintsuekin batera indoeuropar edo indogermaniar hizkuntza asmatu zutenean) gidaria aukeratua zuen bere gudarostean gidari.

Halako iraultzetan ohi denez, aurkako propaganda egiten da, gaur bertan bezala. Halatan inon diren gaitzak eta kalteak Jainkosari erantziaz: sorgiña da, hondamen guztiak beragandik datoz, etab. Marduku<Martu/Marti/Martxo ezagun zaigun jainko semea, berriz, adore handiko, arma berriekin trebatua eta "magia handiko" eroea, "ino eta in"/"esan eta egin" egiten zekiena. Zeiñek gehiago burrukara deitu eta Marduku-k menderatzen du Tiamat. Marduku-k ezpataz eraso eta erdi bi egin zuen Tiamat, zatiki bata zeruan eransten eta bestea itsasoan amildu zituela. Jarraian haren gudakide Kingu oratu eta odolustu egin zuen eta haren odola, autsaz nastuta, gizaki berria sortu zuen Enkik. "Inundiko harrigarria" goresten dute autoreek eurek.

Enuma elish poeman VI eta VII kapituluak Marduku eroiari egotzitako berrogetamar deitura agertzen dira: asaro da, adibidez, eta "sementer" aipatzen du azalpidez eta euskeraz Azaro "azi+aro" da, izan ere. Beste deitura bat. Marduku baratzak usu da, ots, baratza erdian jartzen den kuso, edo "txorimaloa". Kuso<kusi/ikusi formatik dator. Ikusle edo begiralearentzak ez zen toki txarra zikuratu gaiña. (Kapitulu hau Unibertsitatean azaltzea euskaldun berri neska bateri egokitu zitzaion eta "esto parece euskera" auteman zuen eta "tate" maisuak, mesedez, holakorik...)

Haraz gero, gizonezko jainko izenak bakarrik agertzen ziren Esarra-zikurateko batzarretan, jainko eme izenik ez.

Enuma elish urteroko jaietan arrandiz irakurri eta antzesten zan Babilonian. Babilonia<Babil ere deitzen zen eta argi gera daitela euskara ez zela Babelen sortu, ezpaere Babeleraino behintzat heldu zela ama eskola eta aginteko gure hizkuntza hau. Enuma elish poema lekuko. Poema honek bere eragina izan zuen Egipton, Grezian, Israelen baitipat, ino/in "esan/ egin" magia azaldu den tokietan bederen.

Babiloniako iraultzak ezpataren zauria utzi zuen teologia bidetan eta amorruek aurrera darrai, emakumea bazterten eta hiltzen den toki eta aginte guztietan.

b.2. Egiptoko iraultza

Egiptoko iraultza Menphisko apaizen eskutik sortu zen: Babiloniakoa baiño sotilagoa da ideien aldetik eta orioaren eragina du bestetik. Etxean baino auzoan arrakasta handiagoa izan zuan, Israelen behinpehin. Menphisko apaizek Ptah zeritzaion astapena edo prinzipioa, aurkeztu zuten. Euskeraz aztertuz, Bata irakurten dut, hastapen horrek jainko guztien batasuna egin nahi duelako, “zazpiak bat” esaten dugunean bezala.

Nondik dator, oster, izena? Euskarak bokala aurretik ezarriaz ahozkatzen ditu hitzak, Bata bada, Abata esango. Nor den Abata? Monastegiko apaizen burua: hala, adibidez, Menphisko apaizen burua. Abata>apaiz dator, eratorriz. Orain ere erabilten da bata “el uno” adierazteko. Artean horretarako hona/on erabili ziteken horretarako, orain erromanikoetan darraian formak. Baina Menphisko Sorkuntza Teologiaren ostean, bat, bata>Ptah esaten da.

Teologia honek ama/eme uneko jainkosak ixildu eta aita/ar ordenako jainkoak aipatzen ditu “Ptah Erra da”, adibidez, eta hortik Ptah+Ra kordatuz, Patra hitza sortzen dute grekoek eta Pater latinoek, Piter, indoeuropearrek. Eta euskaldunek? Gure literaturan “Egiptoko padarrak”/ los padres de Egipto” esakuna irakurten da, hango kristau monxeak “padres de Egipto” aipatzean.

Teologia honen sotiltasuna zertan den? Ama Jainkoaren ohorea AMA izatean datza, gauza eziña gizonezkoentzat, eta gaiñera Amaren eskua aurrean ez da Aitaren eskuarekin gonbaratzeko. Ez orain eta gutxiago orduan. Amatu ezinean, amakatu egiten dute: amaka>magiara joz, hizkirimiriz bezala, “Ptak bihotzetik ahora datorren otsaz egia sortzen du, “bihotz/abotz” eratara. Horrela Ptah da “jainko guztien sortzaile” ta tenen dino testuak. Irakurri atta denen eta idoroko duzue euskara, nahiz honi buruz gehiago jakin Iruña-Beleikiako egitiar maisuak. Izan ere, egitiar psikologiak bihotzean jartzen zuen adimen eta sormen unea. Grekoentzak kardia “biotz” fisikoa da, euskaldunentat gardi “ustea” da, latinoentzat corde “biotz” fisikoa da, euskaldunentzat korde/ kordetu/akordatu “adimenera etortea” da.



Egiptoko Ptah jainkoa

Israelgo idazkariak eskola horri jarraiki, honela idazten dute Biblian: “Jainkoak hala esan zuan: sortu bedi argia, eta argia izan zan”(Has.1,7). Joanen Eban-ge-liaoak ere horrelatsu “Hasieran Hitza zan” (Jon 1.1) esanaz hasten du laugarren Ebangelioa. Egipton bertan ez zuen izan arrakasta handirik Ptah sortzailearen teologiak, gnostikoez landa. Egipto, Nilo ibarreko toki berezia zan eta jainkosa/jainkoen harrizko tenploez, marrazkiz eta jeroglifikoz betea.

b.3. Greziako iraultza

Grezian Ama aginteko aztarrenak dituzte Peloponesoko hiriek, Mikenas, Tirinto, Argos, etab. eta Kretan kultura parekidea zuten. Kretak bereziki harreman handiak zituan Egiptorekin eta horrek euren arteko harmonia sortzen zuen. Baiña doriar izeneko gudu

mutilek armonia hori apurtu egin zuten eta, haraz gero ez galdetu Platoni harmonia hitzak zer esan nahi duen. Galdetu hori euskara bezalako barbaroen hizkuntzari. Barbaroa ala barbaroa

ote den... Doriarrek jatorrizko hizkuntza biurritu egiten zuten: adibidez andre zegoen tokian aner>andre “gizona” jokutzen. Hesiodoren garaitik historia egiten hasi ziran, baiña euren eroien gorespenerako goralpenak ziran. Galdetu euskarari zer dagoen eros/eroso/erosi/ero hitzen artean eta argibide bat duzue. Egipton Ator maite jainkosaren seme bata Orus/Oruse/Ortzi zan eta grekar maitasun jainkoa Eros da, ostera. Grekar jokera, ezinbestean imitatu eta ahal zutena biurritu. Gau uts argi dago guretzat, baiña kaos ilun eurentzat, zena atan argi dager “hila atean”, baina zanatu jokatur ez. Eta “heriotza” esan nahi du, hilobietan oparo agertzen zen oroit iragarkia.

Grezian nabaria da ar-sena edo matxismo zakarra. Jainko berrien sortzean, Zeus zen sortzaile eta burutik atera zuen Atenea alaba buru oskol eta guzti. Hori aipatzean, gehigarri dino Hesiodok, Zeuz buruko miñez egon zela zati baten...

Eta Euripidesek honela diño Medea tragedian :“Balinba, hilkorrei aurrak izateko beste modurik gertatzea, emaztekoa baztertu eta akats gabeko gizakia behingoz sortu ahal izateko”.

“Bai hori, zure eritzia izango da” “Bai, hau nere eritzia da, jakina, baiña ez nire erejia. Eritzi honekin ez naiz eresian jausten. Grekoentzat eta euren burubidea jarraitzen dutenentzat, ostera, dena da heresia, behin h-a aurretik ipiniez gero. Eta zer den heresia? Legez onartua dagoen eritziaren aurka joatea. Adibidez, gehientsuenok “herexeak” gara gu Unibersitatearen aurrean. Zer dela-eta? Nominatik aparte inbestigatzen ari garelako.

Hizkuntzari buruz, Platonek beste jakingarrien artean zera diño: “emakumeek hobeki gordetzen dute hizkera zaharraren, edukia”. Oroitzapen hobeko direla emakumeak? Ama hizkuntzari lotuagoak zihur. Zerbait holako gertatu zan Neosumerian, jendea sumeriar iskribuak eta jakinduria kopiatu nahian zebiltzala, eskribaria kexu da; “baiña nola nahi dute ganoraz hizkuntzaz aldatu, sumeriera jakin gabe?” Eta euskaldungoan halaber: “nola nahi dute lingüistika lana egin, aztertu, arakatu, ikertu, inbestigatu, euskara jakin gabe eta euskaraz baliatu ezik?” Nola Europako euskara baztertu eta indoeuroparra asmatu?

b.4. Kanaango iraultza

Kanaan zeritson Libano buruan, gaur Siria den itsas uneari: Ugaritu, Sidon, Tiro, etab. uriak entzutetsuak ziran, feniziarrek, beste izen batez ezagutuak. Ugari-tekoak itsastar ziran. Kontu egin ugaritu/ugarotu hizkunea. Israeldarren familiakoak ziran era hoiek kristauekin duten kutsuagaitik aipatzen ditugu, bederen.

Kanaango jainkoa Ilu “loi/lur” zan, hizkuntzan ele arketipoa bera, jainko aul, loia, benetan, lur beraren goraberak dituela: euritea, legortea, ugaritasuna eta urri bizia, indarra eta auldura: ahal eta aul, ola eta ila. Ezpai hoiek batez ere bere seme Balu/Baal eroiak jasaten zituan bere bizi burrukan. Anatu jainkosa zuen gudu kide. Bien artean nolabait Inanna eta Dumuziren arteko hilleta eta biztea gertatzen eta antzezten zuten. Iluren emazte Atiratu jainkosak aholkatzen du Ilu lelotua. Ohar, Japoniako jainkosa argia Amaterasu dela...

Israelgo jainkoa izenez aldakorra da. Behin Ilu>Ely>Eloin da, islamiarren Ala jainkoaren ereduakoa, eta bestetan Yawe da, ots, Jau+be, euskarak ulertzen duen bezala, ostera, jaube/jabe “dueño” da, “ene Jaun eta Jabea” goralpenean bezala. Ala formak alen dakar “ekiña/ frikia” esan nahi du euskaraz. Aldi batean Yaweri ere emazte Aserat egokitzen zioten, gero, alargundu egin zuten eta jainkosa irudi guztiak puskatu egin zituzten Josias erregearen

garaian, 140 K.a. Bibliaren idazleetan Eloindarrak eta Yawetarrak bereizten dira. Lehen “ikonoklastak” israeldarrak izan ziran. Inko “ikono”, kalatu>galdu “klasta”...

Jesus, Nazaretoko profetak ez zuen erlijio berririk sortu eta igarotzat eman zuen bere aurretikoen erritua: “eratsi tenplo hau eta neuk jasoko dut berria hiru egun barru” esan zien apaizei, odol ixurketarako abereak askatu eta euren larrerra bidaldu zituenean eta “zergaitik egin diguzu hori” galdetu zienei. Jesusek emakume gaisoak osatu zituan, lagunartean emakumeak ere onartu egiten zituan. Behin harriatzeko ekarri zioten emakumeaz errukitu egin zan. Emakumeek bere biztueraren lehen aldarrikatzaile izan ziran. Kristok kristonak egin zituan. “Kristolako” forma erabili ohi da gure artean...

Kristautasuna gero Grezia eta Erromako kulturen eta politikan murgildu zan kokoteraino, baiña hor dauka ta hor dago Jesusen Berriona.

b.5. Iraultza Mauritania eta Iberian

Saharako tuareg endak gogoan du oraindino bere ama Tin Hinan erreginaren oroitzua. Amazigeak dira eta amagandiko amatigoa dute, gainerako bereberak eta guantxeak bezala. Amatigoa basakeria gainditu duen gendea da, ots, ama eskola duena. Ez dira, bihotzez behintzat, mahomatar, ez erlijioaz, ez politikaz eta, ostaz bada ere, ama hizkuntza gordetzen dute, arabearen aurrean.



Erlijio iraultza eta erabat hizkuntza iraultza Erromako gudu gizonek ekarri zuten, Kartagora bezala, Iberiara eta Euskalerrira. Erromatarrek grekoen gogaide ziran indarkerian, emperioko jainko/jainkosa berriak izendatu zitzuzten, bakoitzari zeregin berezia ezarten ziotela, ots, jainkoei agindu, agintari berrien aldeko lana egin zezaten: zeru-lurrak maneatu ekintza berean.

Erromatarrekin batera, patriarken kulturen erroteriko, kristau misiolaria zetorren. Herriak Jainkosari jarraitzen ziola ikusirik, Jesus jainkotuaren ama Maria Jainko Ama izendatzen lehiatu ziran Efesoko Batzarrean (431 K.o) Euskaldunentzat gaitzerdi, Mari/Maria bai-zan Ama Jainko edo Jainkoren Ama izena. Ez horrela, guantxeen belarrietan, adibidez, Maria barik, Chaxíaxy deitzen bai-zioten “eguzkiaren Ama”, “Zerua egaritzen duena”, Egiptoko Nut bera gogoratzen diguna.

Erromatarrek ez elizak ez du Iberiako Dama deituriko jainkosik aipatzen, haien arrastoa ezabatzea konbeni zitzaien bai batzuei eta bai besteei. Dama jainkosen irudiak gero lurpetik jasoak izan dira museorako. Ambotoko Damak/ Marik, ez zuen antza, irudirik, ez santutegirik, mendiko kobak izan ezik. Beraganako joera sorginkeriatzat itxurgatua izan da. Hala ere, Urkiolako Santutegian ez diote Andre Mariari kaperarik jaso, ausaz, Mari Jainkosa dagoen tokian, izen bereko Andre Mari aipatzeak jai zukeelako. Hagaitik beste santu batzuren izena, San Anton eta San Antonio, aukeratu zituzten, mendien eta aldien bakerako.

Euskaldunok Iruña-Beleiako ostraketan daukagu, bestalde, kristautasun goiztarraren berri nahiko, ango Aita gurea eta Kristo kurutzatuaren irudiak argi azaltzen dutenez. Han euskara Amaeskolako aztarren biziak ere, hanartean iberiar hizkuntza itzaltzen zioala, latinaren bultzadaz.